

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Baionako baioneta



CHÂTENAI (FRANTZIA), 1723. “Antzina, lurra despopulatzeko / gerraren deabruak Baionan asmatutako armak / infernuko fruitua dirudi / eta garra eta sua baino izugarriagoa da”. Voltairek bertso hauek eskaini zizkion baionetari *La Henriade* lanean. Eta, horrenbestez, berez nahiko argia den etimologia baieztatu zuen. Frantsesez *bayonette* esaten zaio, ingelesez *bayonet* eta gaztelaniaz *bayoneta*.

Hitzak Baionako makiletan du jatorria. Makila horiek altzairuzko punta zorrotza zuten, eta luzaroan debekatuta egon ziren. Baina 1511n, Aragoiko Fernandok Luis XII.aren tropak Baionari eraso zionean, asko erabili zituzten.

Baioneta hitza 1575ean erabili zen lehenengoz testu idatzi batean, baina XVII. mendearen erdialdera arte ez zuten modu ezagunenean erabili, suzko arma bati lotuta, alegia. Dirudienez, garai hartako gerra ugarietan,

Baionetak II. Mundu Gerran: ezkerrean, sobietar ejertzitoaren entrenamendu batean, eta eskuinean, bi soldadu estatubatuarren eskuetan. Ordurako, Baionan asmatutako armaren erabilera asko gutxitua zen.

ohikoa zen bolbora eta jaurtigairik gabe gertzea eta, kasu horietan, aiztoak mosketei lotu eta pika moduan erabili beste erremediorik ez omen zuten izaten.

Europako ejertzitoak berehala konturatu ziren Lapurdiko hiriburuko asmakizunaren balioaz. Mosketeak kargatzea lan mantsoa zen; gehienez minutuko tiro bat jaurti zeza keten. Sarri, berriro kargatzerako, etsaia aurrez aurre zuen soldaduak, eta orduan, ezpata eraginkorragoa zen. Baioneta mosketearen muturrari lotuta, bi arma bakarrean batu zituzten.

XIX. mendearen erdira arte baioneta asko erabili zen. Urte haietan, gerran hildakoen %50 gutxi gorabehera arma zuriz hiltzen zituzten. Ehun urte geroago, ordea, %5 baino ez. Suzko armak gero eta eraginkorragoak ziren, eta baionetak enbarazu besterik ez zuten egiten.

Arrastoak

Duela 4.000 urteko txokolatadak

MEXIKON kakao arrastoak topatu berri dituzte duela 3.750 urteko ontzi batean. Jakina zen maiek kakaoa hartzen zutela, baina aurkikuntzak orain arte pentsatu baino zortzi mende lehenago ere erabiltzen zutela esan nahi du, zibilizazio maia eratzen ari zen garaian hain

zuzen. Ontzia Veracruzren topatu dute, Cerro Manatí-ko eremu sakratuan egiten ari diren indusketetan. Kakao aleak xehatu, egosi, eztiarekin, irinarekin eta beste osagai batzuekin nahastu eta lortutako edari alkoholoduna zeremoniatan erabiltzen omen zuten.

